

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA**

Zuzeneko Zergen Zerbitzua

Sozietate eta ez-Egoiliarren gaineko Zergen eta Atxikipen Ataleko

Sozietateen egiteko administrazio egintzen jakinarazpena

Ezinezkoa izan da jakinarazpena egitea, Administrazioari egotzi ezin zaizkion kausak direla medio, eta, beraz, behin Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 108. artikulua eskatzen dituen gutxieneko jakinarazpen saioak egin ostean, dei egiten zaie, iragarki honen bidez, hemen behean aipatzen diren zergadunei edo haien ordezkari, ager daitezzen atal honetara, beheko zerrenda honetan ageri diren administrazio prozeduren ondoriozko administrazio egintzak jakinarazteko.

Interesdunek edo haien ordezkari gehienez 15 egun izango dituzte bertaratzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Sozietateen gaineko Zergaren eta Atxikipenen bulegora jo behar dute (Samaniego kalea, 14. Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era, bulego horrek izapidetutako prozeduretan egiteke dauden jakinarazpenak egiteko.

Epe hori igaro eta artean ez bada agertu, adituko da jakinarazpena eginda dagoela, legez dagozkion ondorio guztiekin, agertzeko emandako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 10a

*Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren burua***JUAN CARLOS DEL TÍO MARTINEZ**

IFZ	IZENA/SOZIEATEAREN IZENA	PROZEDURA
A01001049	QUINTON HAZELL ESPAÑA SA (RPTTE. CASTRO ALONSO, AGUSTÍN)	IDAZKIAK ETA JAKINARAZPENAK
B99435562	GENERAL SERVICES MANAGEMENT ACTIVITIES 2015 SLU	2015KO EKITALDIKO 300452 LIKIDAZIOA JAKINARAZTEA
B99435562	GENERAL SERVICES MANAGEMENT ACTIVITIES 2015 SLU	2016KO EKITALDIKO 300453 LIKIDAZIOA JAKINARAZTEA
B99435562	GENERAL SERVICES MANAGEMENT ACTIVITIES 2015 SLU	2017KO EKITALDIKO 300454 LIKIDAZIOA JAKINARAZTEA
B01493840	UNAISARRIA SL	IDAZKIAK ETA JAKINARAZPENAK